

# Koiuntura ekonomikoa eta merkatuak ASTEKO LABURPENA

2020ko apirilaren 6tik 10era bitarteko astea

---

## ➤ **MAKRO INGURUNEA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ DATORREN ASTEKOETAN ADI EGON HONI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: KONFIANTZA, MICHIGANGO UNIBERTSITATEA



### Datuaren analisia


Michigango Kontsumitzailearen Sentimenduaren Indizeak, jarduera ekonomikoan kontsumitzaileen konfiantza maila neurtzen duenak, apirilean 71ko erregistro bat argitaratu du. Datu hori aurreikusitakotik beherakoa da, zeren 75 jaitsiko zela aurreikusi zen, martxoan 89,1eko maila erregistratu ondoren. Adierazlea 2011ko minimoetan dago. Hala espektatiben azpiindizea nola gaur egungoarena jaitsi egin dira, nahiz eta azken hori gehiago jaitsi den. Beraz, biak orain antzeko mailan daude.

### Adierazlearen deskribapena

Kontsumitzailearen sentimenduaren adierazlea (KSA) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomiko bat da; hortaz, kontsumitzaileen gastuaren adierazle aurreratu bat da. Hilean behin Michigango Unibertsitateak argitaratzen du. Inkesta horren oinarria dira 500 etxebizitza amerikarretan egiten den inkesta batean jasotako datuak. Inkesta hori ekonomiaren egoera orokorraren inguruan eta gaur egungo zein etorkizuneko egoera finantzario pertsonalaren inguruan etxebizitza horiek sentitzen dutenari buruzkoa da. Kontsumitzailearen konfiantza handiak ekonomia hedatzea sustatuko du; kontrakoak, aldiz, ekonomia uzskurtuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: KPI



### Datuaren analisia


KPIa Estatu Batuetan % 0,4 jaitsi zen martxoan, 2015eko urtarrilaz geroztik izan den hileko jaitsierarik handiena izan da. KPIa jaisteko arrazoi nagusia izan zen gasolinaren prezioa % 10,5 jaitea, baita hegazkin txartelak eta arropa jaitea ere. Azpiko inflazioa, elikagaien eta erregaien prezioak baztertzen dituen, % 0,1 jaitsi zen joan zen hilean, hau da, hamar urtean izan den lehenengo jaitsiera izan da. Urte arteko terminoetan, inflazioa martxoan % 1,5 igo zen; beraz, otsailean erregistratutakoa (% 2,3) baino igoera askoz txikiagoa izan zen; aldiz, azpikoa % 2,1 igo zen azken hamabi hilabeteetan.

### Adierazlearen deskribapena

KPIa Lan departamentuak egiten du hilean behin. Etxebizitza amerikarrek kontsumitzen dituzten ondasun eta oinarrizko zerbitzuen, arrunki "erosketa orga" esaten zaionaren, prezioen mailaren bilakaera aditzera ematen duen adierazle bat da. Ez da produktuen prezioa jasotzen, baizik eta ehunekoetan zenbat igo edo jaitsi den batez beste bere balioa. Bere aldakuntzak herri

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: INDUSTRIA PRODUKZIOA



### Datuaren analisia

Otsaileko industria produkzioaren datua esperotakoa baino hobeagoa izan zen Alemanian eta Frantzia; aldiz, Italian kale egin zuen. Alemanian, industria produkzioa % 0,3 igo zen otsailean aurreko hilabetearekin alderatuta; horrela, merkatuak espero zuen uzkurdura saihestu da. Urtarrilean % 3,2 igo zen; aldiz, 2019ko hilabete berdinarekin alderatuta, % 1,22 jaitsi zen. Frantzian, hileko datua +% 0,91koa (% 1,1 urtarrilean) izan zen, +% 0,1eko aurreikuspena gaindituz. Halere, Italian, industria produkzioaren indizea % 2,41 jaitsi zen aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuta eta % 1,23 aurtengo urtarilarekin alderatuta.

### Adierazlearen deskribapena

Industria produkzioaren indizeak (IPI) neurtu egiten ditu herrialde bateko industria sektorearen enpresa ordezkagarri batzuen produkzioko aldaketak. Adierazle hori lortzen da enpresei hilean behin industria sektorearen egoerari buruz egiten zaien galdeketa batetik lortzen diren erantzunetatik. Ekonomia baten produkzio maila nola ari den aldatzen ezagutzea garrantzitsua da hazkundearen analizatzeko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### ERRESUMA BATUA: INDUSTRIAKO ETA MANUFATURAKO



### Datuaren analisia

Erresuma Batuko otsaileko industriako eta manufakturako produkzioaren datua ona da. Fabriken, mehatzeen eta zerbitzu publikoen produktu guztien aldaketa neurtzen duen industria produkzioari dagokionez, % 0,1 igo zen otsailean, aurreikuspenak berdinduz eta hamarren 1 okertuz urtarileko datua (% 0,2). Manufakturako produkzioaren kasuan, % 0,5 igo zen urteko bigarren hilabetea, merkatuak igoera pixka bat txikiagoa espero zuenean (% 0,1), urtarileko % 0,4ko igoeraren ondoren.

### Adierazlearen deskribapena

Industria produkzioaren indizeak (IPI) neurtu egiten ditu herrialde bateko industria sektorearen enpresa ordezkagarri batzuen produkzioko aldaketak. Adierazle hori lortzen da enpresei hilean behin industria sektorearen egoerari buruz egiten zaien galdeketa batetik lortzen diren erantzunetatik. Ekonomia baten produkzio maila nola ari den aldatzen ezagutzea garrantzitsua da hazkundearen analizatzeko.

# DATORREN ASTEAN ADI EGON HONI...

| Data  | Zona          | Adierazlea                                    | Aurreikus |
|-------|---------------|-----------------------------------------------|-----------|
| 04/14 | Estatu Batuak | Kontsumitzailearen prezioaren indizea, YoY    | --        |
| 04/14 | Txina         | Balantza komertziala                          | --        |
| 04/15 | Frantzia      | Hileko KPIa                                   | --        |
| 04/15 | Espainia      | Hileko KPIa                                   | --        |
| 04/15 | Italia        | Urteko EB KPI harmonizatua                    | --        |
| 04/15 | Estatu Batuak | Hileko txikizkako salmenta aurreratuak        | --        |
| 04/15 | Estatu Batuak | Manufaktura inkesta New York                  | --        |
| 04/15 | Estatu Batuak | Hileko industria produkzioa                   | --        |
| 04/15 | Estatu Batuak | Liburu beixa - Erreserba federala             | 0         |
| 04/16 | Alemania      | Hileko KPIa                                   | --        |
| 04/16 | Eurogunea     | Hileko SA industria produkzioa                | --        |
| 04/16 | Estatu Batuak | Hasierako eraikuntzak                         | --        |
| 04/16 | Estatu Batuak | Negozioen panorama Filadelfiako FEDen eskutik | --        |
| 04/16 | Estatu Batuak | Etxebizitza berriak, hilekoa                  | --        |
| 04/16 | Estatu Batuak | Eraikuntza baimenak, hilekoa                  | --        |
| 04/16 | Estatu Batuak | Langabeziaren hasierako eskaerak              | --        |
| 04/17 | Txina         | Urte arteko BPGd-a                            | --        |
| 04/17 | Txina         | Urte arteko industria produkzioa              | --        |
| 04/17 | Txina         | Urteko arteko txikizkako salmentak            | % 4.0     |
| 04/17 | Japonia       | Urte arteko industria produkzioa              | --        |
| 04/17 | Italia        | Balantza komertziala, guztira                 | --        |
| 04/17 | Eurogunea     | Hileko KPIa                                   | --        |
| 04/17 | Eurogunea     | Azpiko KPIa, YoY                              | --        |

## ERRENTA ALDAKORRA

Burtsa errebalorizazio handien astea maila globalean. FEDen pizgarrien pakete berriak, eta Europako ekonomiari laguntzeko neurri berriak dituen Eurotaldearen akordio bat izango zelako esperantzak inbertsiogileak animatu zituen. Arregatunea, halaber, OPEP+en bileraren emaitza izan zen, itxaropena baitzen petrolioaren produkzioa murrizteko akordio bat egitea. Hori guztia European COVID-19 birusaren kutsatze zifrak mantentzeko testuinguruan gertatu da. AEBn, Erreserba Federalak, ostegunean, martxan jarri zuen hiriei, estatuei, etxeei eta enpresei bideratutako banku sistemaren maileguen gaitasuna igotzeko 2,3 bilioi dolarreko pizgarrien pakete berri bat. Banku zentralak, era berean, jakinarazi zuen mailegu korporatiboan bere programak arrisku handiagoko zorraren interes tasetan hedatuko dituela, aurrez baztertu zirenak. European, EBko Ekonomia eta Finantzarako ministroek ostegunean akordio bat egin zuten, koronabirusaren krisiari erantzun bateratua eta koordinatua emateko. Eurotaldeak 540.000 milioi euro mobilizatuko ditu. Hitzarmen horren arabera, erreskateko funts europarrak, MEDEk, 240.000 milioi euro eskainiko dizkie kreditu lerroetan estatukideei, iparraldeko herrialdeek eskatzen zituztenak baino baldintza arinagoekin, funtsen erabilerari lotuta egongo baitira. Bestalde, Inbertsioen Europako Bankuak beste 200.000 milioi mobilizatuko ditu maileguetan enpresentzat; aldiz, Europako Batzordeak 100.000 milioi euroko funts bat sortuko du jardura gelditzeagatik sortu diren ERTE ugariak finantzatzeko. Sinatutako dokumentuak atea irekita utzi zion balizko susperraldi plan bati epe ertainean, Frantziak eta Espainiak eskatzen zutena, alegia. Halere, ez zuen aipatu koronabonu bidezko zorraren jaulkipen bateratua, horren aurka egin baitzuten Alemaniak edo Herbehereek. Makro ingurunean, albisteak ez ziren onak izan, espero zen bezala, eta AEBren asteko langabeziaren datu txarra nabarmendu behar da.

## ERRENTA FINKOA:

Burtsen portaera onak azaldu zuen Atlantikoaren bi aldeetako zor subiranoan salmentak nagusitzea, babes aktibo gisa duen papera murriztuz. Bund-aren interes tasa +90p igo zen, -% 0,35era arte, eta periferikoek bere spreads-ak pixka bat estutu zituzten Alemaniarekiko. Kredituak bere diferentzialak ere jaitsi zituen.

## DIBISAK / LEHENGAIK:

Burtsaren errebalorizazio handiak dolarrari eta yenari balioa kendu zien babes dibisa gisa. FEDen likidezia injekzio berriak ere dolarra ahultzea ekarri zuen. Lehengaien merkatuan, petrolioaren prezioak jaisten jarraitu zuen, OPEP+en bileraren zain. Igande honetan aliantza horretako herrialdeek adostu zuten produkzioa egunean 9,7 milioi jaitzea maiatzean eta ekainean, hau da, petrolioaren eskaintza globalaren % 10 inguru. OPEP+etik kanpo ere murrizketak espero dira (shale oil kanadarrean eta amerikarrean). Urrea, bestalde, % 4tik gora errebalorizatu zen, 1.696,65\$/ontza arte, eta 2012ko maximoetatik gertu dago.

| INDIZEAK     | 2020/04/10 | Asteko aldakuntza | Aldak. 2020 |
|--------------|------------|-------------------|-------------|
| IBEX         | 7.070,60   | % 7,43            | -% 25,96    |
| EUROSTOXX 50 | 2.892,79   | % 8,63            | -% 22,76    |
| ALEMANIA     | 10.564,74  | % 10,91           | -% 20,26    |
| INGALATERRA  | 5.842,66   | % 7,89            | -% 22,54    |
| FRANTZIA     | 4.506,85   | % 8,48            | -% 24,61    |
| ITALIA       | 19.212,87  | % 7,31            | -% 25,03    |
| S&P 500      | 2.789,82   | % 12,10           | -% 13,65    |
| DOW JONES    | 23.719,37  | % 12,67           | -% 16,89    |
| NASDAQ100    | 8.238,53   | % 9,44            | -% 5,66     |
| NIKKEI 225   | 19.498,50  | % 9,42            | -% 17,58    |
| SHANGHAI     | 2.796,63   | % 1,18            | -% 8,31     |
| MSCI WORLD   | 1.971,96   | % 10,98           | -% 16,39    |
| MSCI EMERG   | 888,16     | % 6,79            | -% 20,32    |

| Gobernu motak       | 2020/4/10 | Asteko aldakuntza | Aldak. 2020 |
|---------------------|-----------|-------------------|-------------|
| 2 urte              |           |                   |             |
| ALEMANIA            | -0,62     | 4                 | -2          |
| ESPAINIA            | -0,05     | 10                | 34          |
| AEB                 | 0,23      | 0                 | -134        |
| 5 urte              |           |                   |             |
| ALEMANIA            | -0,56     | 5                 | -9          |
| ESPAINIA            | 0,26      | 3                 | 34          |
| 10 urte             |           |                   |             |
| ALEMANIA            | -0,35     | 9                 | -16         |
| ESPAINIA            | 0,78      | 4                 | 31          |
| AEB                 | 0,72      | 12                | -120        |
| Kreditu spread (pb) | 2020/4/10 | Asteko aldakuntza | Aldak. 2020 |
| ITRX EUROPE (5A)    | 79,73     | -34               | 36          |
| ITRX EUR XOVER (5A) | 462,06    | -172              | 256         |

| Dibisak    | 2020/04/10 | Asteko aldakuntza | Aldak. 2020 |
|------------|------------|-------------------|-------------|
| \$/€       | 1,09       | % 1,26            | -% 2,47     |
| Yena/€     | 118,60     | % 1,16            | -% 2,61     |
| gpb/€      | 0,88       | -% 0,21           | % 3,73      |
| Lehengaiak | 2020/4/10  | Asteko aldakuntza | Aldak. 2020 |
| BRENT      | 26,29      | -% 11,96          | -% 60,42    |
| URREA      | 1.696,65   | % 4,68            | % 11,82     |

Dokumentu hau Kutxabank Gestión SGIIC, SAUk prestatu du, fidagarritzat jotako informazio iturriak erabilita. Halere, ez da bermatzen dokumentuaren zehaztasuna, zuzentasuna ezta informazioaren eta bertan jasotako iritzien osotasuna ere; halaber, ez du bere gain hartzen horrekiko inolako erantzukizunik. Dokumentu honetako hala informazioa nola iritziak aldaketen mende daude, eta ez da jakinarazpenik egin beharko. Kutxabank Gestión SGIIC, SAUk ez du erantzukizunik dokumentu hau eta bertako edukia erabiltzeagatik sor daitezkeen kalteei dagokienez. Merkatu finantzarioetan eragiketak egiteak arrisku handiak ekar ditzake, eta posizioa etengabe zaintzea eskatzen du. Txosten hau ez da aktibo finantzarioak erosteko edo saltzeko eskaintza bat ezta eskaera bat ere. Dokumentu hau informatzeko eskaini da eskusiboki eta ezin da kopiatu edo hirugarren bati eman, eta ezin da erabat edo partzialki argitaratu inolako arrazoiengatik.